

Donostian, Diputaziñoan, 1965-VI-25.

Bildu dira: Dassance, buru, Lafitte, Labayen, Zavala, Satrustegi, Larzabal, Haritschelhar, Arrue, Irigaray eta Irigoyen euskaltzaiñak. Eta Artola, Zubikaray, Etxaniz, Baztarrika eta Zatarain laguntzailleak.

J. M. Barandiaran eta Aita Villasante-k ezin etorria adierazo dabe.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Antonio Ibañez Morales jaunak zuzendutako karta bat irakurri da *Aitana* itzaz.

Bizkaiko Ahorro Kaxa-k amairu milla peseta emon deuskuz Bizkaian aurten egin-gin diran bertsolarien saioetarako. Gaiñera beste amar milla peseta. Bilboko Ahorro Kaxa Munizipalak bost milla peseta. Eskerrak emon bekiez.

San Antonio egunean Urkiola-n egin da bertsolari saio bat.

Egin dira Bizkaiko neska mutillen esamiñak.

Asteasu-ko Ayuntamentuak zuzendu deuskun ofizio bat irakurri da. Euskaltzaindiaren eretxia eta laguntasuna eskatzen dabez Pello Errota-ren omenezko jaietarako. Erantzun bekie prest gagozala.

Jose Mari Arzalluz jaunak zuzendu dauen kartu bat irakurri da. Iraillean Umeen bigarren euskal-jaiia egin gura dabe Zarautzen eta Euskaltzaindiaren babesa eta laguntza eskatzen dabe. Emon bekie.

Azpeitiko Ayuntamentuak zuzendu deuskun ofizioa irakurri da. Karmelo Etxegaray zanaren omenez egin gura dituezan jaiak aipatzen dituez eta garaia datorrenean laguntasuna eskatuko leuskuela programea egin baiño leen.

Idazlari ordeak diño Lekeitioko Ayuntamentutik itzez eskatu deuskuela Azkue-ren omenez ipiñi zituzcan sariketen juraduan parte artzeko ordezkari bat izendatu daigun. Aita Luis Villasante izan bedi.

Agora novela sariketarako eskatu deuskuen juradua izendatu da: Lojendio, Mitxelena, Arrue, Irigaray, San Martin eta Loidi.

Larzabal-ek diño urriko batzarra Bayona-n egin leitekeala. Egin bedi.

Satrustegi-k lantxo bat irakurri dau Zubigar-en iztegi laburrari oar batzuk egitiñik.

Berbaldi bat egin da. Zatarain eskolaz aritu da eta Irigoyen-ek aipatu ditu Azkoitin «Amigos del País»-ek prestatu eban eguneko gora berak.

Oi don otoitzgaz asi ta amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburuordea*

L. DASSANCE

*Idazlariordea*

ALFONSO IRIGOYEN

Donostia'n, Diputazio-jauregian, 1965-VII-30-ean, bildu dira: Dassance, buru, Eppherre, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lekuona, Lojendio, Mitxelena, San Martin eta Satrustegi euskaltzaiñak; Arregi, Barandiaran, Etxaniz eta Zatarain laguntzailleak. Arrue'k eta Labayen'ek ezin etorria agertu dute.

Ontzat artu da azken batzarreko agiria, irakurri ondoan.

Asteasu'ko euskal-jaien berria Arrue'k bidali du. Orobat, ortarako izendatu zirenak adierazi dute Donostia'ko Agora-saria, euskal-eleberrientzat, Zubikarai'k eraman zuela, bigarren —diru-saririk gabe— Estanislao Urruzola gelditzen zelarik.